

Irati Fernandez Arbelaitz

Itzulpengintza eta interpretazioa 2017-2018

Gradu amaierako lana:

**FEMINISMOA ETA EUSKAL ITZULPENGINTZA. KASU BATEN
AZTERKETA, FRANTSESETIKO ITZULPENETAN**

Tutorea: Bego Montorio

Frantses Filologia saila

Letren Fakultatea

EHU-UPV

Laburpena

Feminismoa geroz eta arlo gehiagotan aplikatzen da, eta itzulpengintzari ere aplikatu izan zaio. Lan honetan feminismoa eta euskal itzulpengintza lotzen saiatuko gara, bi gai horiek bil ditzaketan aztergai ugarietatik bat landuz. Erabaki dugu lan hau modu deskriptiboan eta bi zatitan egitea. Lehen zatian, itzulpen teoria feministei buruz arituko gara, lehenik orokorrean, teoria horien hastapenak aipatuz Quebec-en 1980ko hamarkadan, geroztik nola garatu diren, zenbait autore garrantzitsu aipatuko ditugu, zein izan diren haien ondorioak, zein diren proposatzen dituzten itzulpen-estrategiak, eta labur-labur aipatuko ditugu, baita ere, egin zaizkien kritikak. Ondotik, saiatuko gara islatzen teoria horiek euskal itzulpengintzan izan duten oihartzuna. Orain arte, euskaraz askorik landu ez den gaia da, eta gainera, horri buruz idatzitakoak ez daude berariaz inon jasota. Hortaz, gaiari buruz bildu ditugun testuak xeheki aipatuko ditugu lan honetan.

Bigarren zatiari dagokionez, kasu-azterketa bat egingo dugu. Feminismoa eta euskal itzulpengintza gaiak barne hartzen dituen adibide bat aztertuko dugu: 2017an argitaratutako saiakera feminista baten itzulpena, hain zuzen ere. Jatorrizko liburua Virginie Despentes feminista frantsesarena da, *King Kong Théorie* izena du, eta 2006an argitaratu zen. Euskarazko itzulpena, berriz, *King Kong Teoria*, 2017koa da. Eskafandra bilduma feministaren barnean argitaratu zen (Jakin eta Elkar), eta Itziar Diez de Ultzurrunek itzuli zuen. Saiakerak oihartzun handia izan du gurean, eta hori izan da hautatzearen arrazoi bat. Gure xedea da 2017ko argitalpen hori bere osotasunean aztertzea. Lehenik, itzulpenaren testuingurua eta aurretikoak aztertuko ditugu, eta ikusiko dugu azken bi urteetan egitasmo berriak loratu direla euskal argitaletxeen munduan saiakera feministak argitaratzeko nahiarekin. Bestalde, Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaileak gaiarekin duen lotura ere aipatuko dugu. Ondotik, itzulpen-prozesuan murgilduko gara, eta itzultzaileak izandako zailtasunak eta erronkak aipatuko ditugu, baita itzultzerakoan egin zituen hautuak ere, tartean saiakerako kapitulu

izenburuak, erreferentziak, Despentesen estiloa... Azkenik, itzulpen horrek izandako harrerari buruzko zenbait zertzelada emango ditugu, tartean prentsan agertu diren kritikak, irakurle-taldeetan izan duen eragina, edota liburuarekin lotuta antolatu diren ekimenak.

Aurkibidea

0. Sarrera eta metodologia.....	3
1. Itzulpengintza eta feminismoa.....	5
<i>1.1 Itzulpen teoria feministak.....</i>	<i>5</i>
<i>1.2. Itzulpen teoria feministak euskaraz.....</i>	<i>10</i>
2. Kasu-azterketa: King Kong Teoria.....	16
<i>2.1 Itzulpenaren testuingurua eta aurretikoak.....</i>	<i>16</i>
<i>2.2. Itzulpen-prozesua.....</i>	<i>20</i>
<i>2.3 Itzulpenaren harrera.....</i>	<i>24</i>
3. Ondorioak.....	26
4. Bibliografia.....	27
5. Eranskinak.....	30
<i>5.1 Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaileari egindako galderak.....</i>	<i>30</i>
<i>5.2 Eider Rodriguez Eskafandrako kideari egindako galderak.....</i>	<i>31</i>

0. Sarrera eta metodologia

Feminismoa eta euskal itzulpengintza lotzen dituen eremua oso zabala da, eta gradu amaierako lan baten mugak luzaz gaindituko lituzketen ikergai eta ikuspegi ugari antzeman daitezke bertan. Gaia zehaztu eta mugatu behar horrek eraman gaitu fokua itzulpen teoria feministetan jartzera, eta arreta berezia eman diogu gai horri buruz euskaraz idatzitakoari.

Irudipena dugunez euskal itzulpengintzaren munduan gero eta gehiago lantzen ari dela gai hau, egokia iruditu zaigu lan deskriptibo bat egitea, eta itzulpen teoria feministen argazki orokor bat eman ondoren, euskaraz horri buruz idatzitako testuen bilaketa egin dugu, eta horien edukiaren berri emango dugu lanaren lehen partean. Euskaraz egon dagoen horren deskripzioa ematea garrantzitsua iruditu zaigu etorkizuneko ikerketei begira, zeren, feminismoa geroz eta txertatuago dagoenez gure jendartean, pentsatzekoa baita esparru hau gero eta gehiago ikertuko dela.

Gradu amaierako lan honen izenburuak dionez, kasu praktiko baten azterketa da lanaren bigarren partea, eta, horretarako, koherentea iruditu zaigu testu feminista baten itzulpena hautatzea. Virginie Despentes-en *King Kong théorie* saiakera feministaren euskarazko itzulpena, hain zuzen ere: Itziar Diez de Ultzurrunek sinatutako *King Kong teoria* (Elkar, 2017). Obra hori hautatzeko zenbait arrazoi egon dira: argitalpen berria da, azken urteotan sortu diren bilduma feministetako batean kaleratu da, eta euskal irakurleen artean nahikoa harrera ona izan du.

Lehen atalean bezala, ikuspegi orokor bat ematea izan dugu helburu, eta, hala, itzulpen prozesu osoa hartu dugu kontuan, argitaratzeko erabakitik hasita liburuaren jendaurreko harreraraino, itzulpen lanetik beretik pasatuta. Itzulpen orok duenez bere testuinguru jakina, ezinbestekoa iruditu zaigu hori ere lantzea, itzulpen lana bere osoan ulertu ahal izateko.

Metodologiari dagokionez, era honetako lan deskriptibo bati dagozkion teknika eta baliabideak erabili ditugu. Lehen atalean, sarean eta liburutegietan topatutako testuak baliatu ditugu itzulpen teoria feministen ikuspegi orokorra eman ahal izateko. Itzulpen teoria feministei buruz euskaraz idatzitakoei dagokienez, berriz, guk egin dugu bilaketa; izan ere, gaiari buruz euskaraz argitaratutako en zerrrenda ez dago inon jasota oraingo.

Lan honen bigarren atalean, aldiz, kasu azterketarako, datu-bilketaz gain (sarean, Nor da Nor EIZI Eren datu-basean, argialetxeen webguneetan...), bi elkarrizketa egin ditugu: bata *King Kong Teoriaren* itzultzaileari, Itziar Diez de Ultzurruni, eta bestea, aztertu dugun liburua argitaratu zuen Eskafandra bildumako Eider Rodriguezi. Argialetxeari buruz hitz egiteko Lorea Agirrerekin hitz egin nahi izan genuen, bera baita Jakin taldeko zuzendaria eta bildumako arduraduna, baina bere agenda dela medio, ezinezkoa izan zitzaigun. Elkarrizketa horietan egindako galderak eranskinean daude irakurgai. Bide batez, eskerrak eman nahi nizkieke galderei erantzuteko tartea hartzeagatik.

Badakigu lan honetan aipatuko ditugun atal gehienetan askoz gehiago sakon daitekeela, baina gradu amaierako lan honen helburua da egoera baten –itzulpen teoria feministei buruz euskaraz zer irakur daitekeen– eta prozesu baten –itzulpen baten asmoa sortzen denetik irakurleek jasotzen duten arteko prozesua– berri ematea, eta lan honen mugak gaintuko lituzke azaldutako atal guztiak sakonago aztertzeak. Arrazoi horretxegatik, *King Kong teoria* liburuaren itzulpen-prozesuaz mintzatzerakoan, itzultzaileak berak esandakoetara mugatu behar izan dugu, jakin arren kanpotiko azterketa sakonago batek oso emaitza interesgarriak ekar zitzakeela.

1. Itzulpengintza eta feminismoa

*King Kong Théorie*¹ saiakera feministaren itzulpenari buruz hitz egin baino lehen, garrantzitsua iruditu zaigu itzulpen teoria feministei gainbegirada bat ematea. Horrela, ondotik aipatuko ditugun gaien marko orokor bat finkatuko dugu.

1.1 Itzulpen teoria feministak

Teoria horien hastapenak Quebec-en koka ditzakegu 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, eta ez da kasualitatea: Quebec eskualde elebiduna izanik, itzulpengintzak leku handia izan du eta du (E. C. Karpinski: 25). Bestalde, itzulpengintzaren historiografiak 1980ko hamarkadan kokatzen du *cultural turn* edo kulturarako bira, une horretan hasten baita itzulpengintza ere kulturalki aztertzen: besteak beste, itzulpengintza eta ideologiaren arteko lotura aztertzen da, baita idazleen, itzultzaileen, irakurleen eta editoreen arteko botere-harremanak ere. Momentu horretan pasatzen da itzulpena jatorrizko kulturak edo helburuzko kulturak definitua izatetik bi kulturen arteko negoziazio baten emaitza izatera (B. Cagnolati: 1).

Kulturarako biraz gain, Itzulpen Ikasketen arloan itzultzailearen ikusezintasunari buruzko hausnarketa zegoen mahai gainean. Zenbait idazlek itzultzailearen paper aktiboa aldarrikatu zuten; izan ere, lehenik eta behin itzultzea testu bat interpretatzea da, hortaz, itzultzaileak ezin du idazlearekiko fidela izan: bere interpretazio propioarekiko izango da fidela. Ondorioz, itzulpengintzari buruzko teoria feministak sortu zirenean, fideltasunari eta objektibitateari buruzko eztabaidak gaindituta zeuden, eta kulturaren eta ideologiaren garrantzia aztertu nahi ziren. Feministek azpimarratu zuten itzultzaileak, kontzienteki ideologia baten aukera egin ezean, ideologia nagusia txertatzen zuela testuan, ideologia patriarkala (Castro Vázquez 2009: 62).

1 Lehenengo argitalpena 2006koa izan arren, lan honetarako 2017ko berrargitalpena erabili dut, Grasset argitaletxearena. Hortaz, lanean zehar emango diren orrialde zenbakiak argitalpen horri dagozkio.

Esan bezala, 1980ko hamarkadan sortu zen feminismoa Itzulpen Ikasketetan txertatuko zuen korrontea. Helburutzat zituen ideologia patriarkalak jendartean eta hizkuntzan duen eragina aztertzea eta horren aurkako estrategiak sortzea. Hasieratik salatu zuten Barbara Godard, Marlene Wildeman, Susanne de Lotbinière-Harwood eta Luise von Flotow itzultzaile feministek emakumezko idazleek idatzitako hainbat liburu galdu direla historian zehar eta beste liburu batzuen mezua distortsionatu dela itzultzerakoan. Nola ez aipatu Howard Parshley-k 1952an egindako Simone de Beauvoir-en *Le deuxième sexe* liburu filosofiko eta feministaren itzulpena, zeinean itzultzaileak hainbat pasarte garrantzitsu ezabatu zituen, idazlearen mezua desitxuratuz (Castro Vázquez 2008: 288).

Bestalde, itzulpengintzaren historia ikuspuntu feministatik aztertu zuten. Lori Chamberlainek "Gender and The Metaphorics of Translation" artikuluan azaldu zuen itzulpengintzaren teoriarik gehienak ikuspegi patriarkaletik eraiki direla. Izan ere, hainbat metafora erabili izan dira itzulpengintza aztertzeko; esaterako *Les belles infidèles* esamoldea erabiltzen da adierazteko itzulpenak, emakumeak bezala, ederrak baldin badira ez direla fidelak izango (Castro Vázquez 2009: 66). Fideltasunaren kontzeptua asko erabili izan da itzulpenetarako, nahiz eta gaur egun baztertzeko ari den. Gainera, Chamberlainek azaldu zuen itzulpenak eta emakumeak komunean dutela bigarren mailako izaera: gizonek eta idazleek lan produktiboa, aktiboa egiten dute; eta emakumeek eta itzultzaileek berriz, lan pasiboa:

As feminist research from a variety of disciplines has shown, the opposition between productive and reproductive work organizes the way a culture values work: this paradigm depicts originality or creativity in terms of paternity and authority, relegating the figure of the female to a variety of secondary roles. I am interested in this opposition specifically as it is used to mark the distinction between writing and translating-marking, that is, the one to be original and "masculine," the other to be derivative and "feminine" (Chamberlain 1992: 455).

Teoria feministek itzulpengintzari egin dioten beste ekarpen bat estrategia multzo bat da, itzultzerakoan ideologia patriarkala ez transmititzeko. Hasteko, generoak sor ditzakeen itzulpen-arazoak aztertu dituzte. Castro Vázquezek aipatzen duen lehen arazoa genero-markarena da, hizkuntza bakoitzak ezaugarri ezberdinak baititu:

Una primera tipología de problema tiene lugar cuando la lengua origen no exige marcas de género, mientras que las características estructurales de la lengua término sí obligan a especificarlo. A modo ilustrativo, al reescribir en inglés la expresión “hizo los deberes”, la traducción exige conocer una información extra relativa al género que se debe obligatoriamente incluir (Castro Vázquez 2008: 291).

Ilido beretik, arazoa sortzen da jatorrizko hizkuntzak generoa markatzen badu eta helburu-hizkuntzak ezinezkoa badu modu berean markatzea. Orduan, itzultzaileak erabaki bat hartu beharko du, ea testuan aipatzen den pertsonaren generoa azalduko duen, eta, azaltzekotan, nola egin.

Una muestra de este dilema la recoge Nissen cuando explica que en el poema “Ninguneo” (“Nobodying”) de Rosario Castellanos, conocer el sexo del referente es justamente lo que provoca el problema de traducción: “¿qué diablos hago aquí en la Ciudad Lux, / presumiendo de culta y de viajada? (*sic*) [...]” (*apud.* Nissen, 2002: 25). El inglés no dispone de sufijos derivativos que marquen el género, así que la opción del traductor(a) para suministrarle la información necesaria a su audiencia fue la de “what the devil am I doing here in the City of Lights / putting on the airs of a *cultured and well-travelled woman?* (*sic*) [...]” (Castro Vázquez 2008: 291).

Aldiz, jatorrizko testuan generoa ez bada markatzen eta ezezaguna bada, askotan “Male-as-Norm printzipioa” (Castro Vázquez 2009: 79) aplikatu ohi dute itzultzaileek, hau da, genero maskulinoa erabiltzen dute, kasu jakin batzuetan izan ezik: pertsonaia emakumea dela pentsarazten duten estereotipoak daudenean. Horrek emakumeen ikusezintasuna bultzatzeaz gain, batzuetan itzulpen-akatsak ere eragiten ditu, zentzugabekeriak sortuz.

Arazo horien aurrean, Luise von Flotow-k hiru estrategia proposatzen ditu bere 1991ko “Feminist Translation: Contexts, Practices and Theories” artikuluan: *supplementing* edo ordezkapena, *prefacing and footnoting*, hau da, metatestualitatea erabiltzea, eta azkenik, *hijacking* edo bahiketa. Zerrenda honi Castro Vázquezek proposatzen duen *pacto especular* edo ispilu-paktua gehitu nahi genioke.

Supplementing edo ordezkapena da lehenengo estrategia. Itzultzaileak zuzenean eragiten du testuan, generoari dagokionez hizkuntzen arteko ezberdintasunak konpentsatuz: konnotazioak, genero-markak... Cagnolatik estrategia honen hainbat adibide ematen ditu “Traductologia: Exploración de un enfoque feminista de la traducción” artikuluan. Adibideak Nicole Brossard-en *Elle serait la première phrase de mon prochain roman* (1998) liburuaren itzulpenetik erauzi ditu, hain zuzen ere Susanne de Lotbinière-Harwood itzultzailearen *She would be the first sentence of my next novel*-etik:

Este recurso habitual, lo encontramos en los siguientes ejemplos:

la plupart des écrivaines (p. 20) / that most women writers (p. 21),

la mélancolie de ses écrivain/es (p. 56) / the melancholy of its writers, men and women (p. 57),

Je suis une urbaine (p. 60)/ I am an urban woman (p.61),

De nouveaux auteur/es (p. 64)/ New writers, men and women (p. 65) (B.Cagnolati 2013: 4).

Bigarren estrategia, *prefacing and footnoting* izenak dioen bezala, itzulpenari paratestua gehitzean datza. Itzultzaileak hitzaurre, nota eta beste paratestuen bidez bere hautuak azaltzen dizkio irakurlari: itzulpenaren helburuak, egin diren aldaketan zergatiak, testuak dituen berezitasunak, etab.

Hirugarrena, bahiketaren estrategia da intentzio feministarik ez duen testuari, itzulpenean, ezaugarri feministak gehitzea. Itzultzaileak bere estrategia hitzaurrean azaltzen du, eta ondotik, itzulpenean beharrezko aldaketak egiten ditu. Adibide bat litzateke jatorri-testuko maskulino generikoa femenino generikoarekin edo forma neutroekin itzultzea.

Castro Vázquez-ek laugarren estrategia bat aipatzen du: *pacto especular* edo ispilu-paktua. Kasu honetan, itzultzaileak elkarlan bat eramaten du idazlearekin testuan aldaketak egiteko, eta bukaerako emaitzaren egiletzat biak hartzen dira.

Marko teoriko hau osatzeko, interesgarria iruditu zaigu teoria hauei egin zaizkien kritikak ere gehitzea. Horretarako, Luise von Flotow-ek *Palimpsestes* aldizkarian argitaratutako “Le féminisme en traduction” artikuluan oinarrituko gara. Bertan, hiru autoreren kritikak azaltzen dizkigu.

Lehenik, Gayatri Spivak indiarra aipatzen du; berak dio estrategia feminista horiek kulturen ezberdintasunak ezabatzen dituztela, batez ere, botere gutxiago duten kulturenak. Ingelesari garrantzia gehiago ematen zaio, eta botere gutxiagoko herrietako emakumeen obrak ingelesera itzultzerakoan, haien berezitasun kulturalak ezabatzen dira.

Rosemary Arrojo brasildarrak, berriz, kezka du fideltasunarekiko. Bere ustetan, itzultzaileak idazlearen helburuak errespetatu behar lituzke, eta ikusezina izan.

Lehenago aipatu estrategiak erabiltzen direnean, itzultzailea autore bilakatzeko arriskua dago.

Azkenik, Robyn Gillam Quebec-eko irakasleak egiten duen kritika dugu. Bere aburuz, perspektiba feminista batetik egin izan diren itzulpenek testuak “iluntzen” dituzte, eta elite elebidun bati zuzenduak dira, kasu honetan Quebec-en ingelesa eta frantsesa menperatzen dituen mundu akademikoari.

1.2. Itzulpen teoria feministak euskaraz

Teoria feministek itzulpengintzari egindako ekarpenak beranduago irakurri ahal izan ditugu euskaraz, eta oraindik ere nahiko urriak dira gaiari buruzko artikuluak eta ikerketak. Atal honetan aipatuko ditudanen artean, bi euskaraz idatzitakoak dira: Bakartxo Arrizabalaga eta Iratxe Retolazarenak, biak emakumeak, biak itzultzaileak, eta biak gaiari inplikatuak. Hirugarrena, berriz, itzulpen bat da: María Reimóndez itzultzaile, interprete eta idazle feministaren testu bat, Bego Montorio itzultzaileak galizieratik ekarria.

Itzulpen teoria feministei buruz aurkitu dugun lehen testua 2008koa da, hortaz ia 30 urte pasa dira Quebec-eko lehen teoriak argitaratu zirenetik. Atzerapen hori loturik dago seguru aski euskal itzulpengintza zientzia gisa aztertzen nahiko berandu hastarekin; izan ere, Euskal Herriko Unibertsitatea 2000. urtean hasi zen Itzulpengintza eta Interpretazioko ikasketak eskaintzen, nahiz eta lehenago ere Itzulpen masterrak eskaintzen ziren bai Euskal Herriko Unibertsitatean, bai Deustuko Unibertsitatean.

Beste alde batetik, ikus dezakegu, itzulpengintzaren eta feminismoaren arteko harremana lantzen duten testuak euskaraz, emakumezko itzultzaileengandik datozkigula, eta aldizkarietan argitaratu izan direla.

Bakartxo Arrizabalaga izan da gaia landu duen itzultzaileetako bat. 2008an *Senez* aldizkarian idatzi zuen artikulu bat dugu horren lekuko: “Itzulpena eta feminismoa” deituriko artikulua, hain zuzen ere (Arrizabalaga 2008: 81-95). Gaiaren zabalera azpimarratzen du lehenik eta behin, bai itzulpengintza eta bai feminismoarena, horregatik, biak uztartzen dituen arloa ere oso zabala da. Artikuluaren lehen zatian itzulpenetako subjektua aipatzen du, kasu honetan, emakume itzultzaileak. Lanbidearen beraren ezaugarrien ondorio da, bere ustez, emakume itzultzaile gehiago izatea gizon itzultzaileak baino: langilearen ikusezintasuna, bigarren mailako izatea idazlearekiko, etxean lan egitearena... Eta gainera, lanbidearen barnean ere emakumeak bigarren mailako dira. Itzultzailearen irudia gizonetzkoa da, itzulpen-sari gehienak gizonetzkoek irabazten dituzte, literatur-itzulpenen kritikari gehienak gizonak dira, eta, gainera gizonetzkoek itzulitako obrei buruz egiten dituzte kritikak batez ere. Esperantza eman dezakeena, aldiz, EIZIE elkarteko datuak dira: gizon bazkideen kopurua emakumeena baino handiagoa da, baina zuzendaritza organoetan kopuru berean daude. Arrizabalagak artikulua idatzi zuenetik, datuak aldatu dira. Gaur egun, emakumezko bazkideak gehiago dira gizonetzkoak baino (195 emakumezko eta 145 gizonetzko). Zuzendaritza organoetan ere, emakumeak dira gehiengoa: zuzendaritza taldean 6 emakume daude eta 2 gizon.

Artikuluaren bigarren zatian itzulpengintza politika aipatzen du, eta argitaratze politikarekin duen lotura. Esaten du ez dagoela emakumezko itzultzaileen aldeko politikarik, ezta emakumezko idazleen itzulpenen aldekorik ere. Argitaratzen eta saritzen diren obra gehienak gizonetzkoek idatziak dira, eta gizonetzkoek itzultzen dituzte. Kritikaren kasuan ere, emakume idazleek eta emakume itzultzaileek “antzeko bazterketa” jasotzen dutela dio. Hala ere, irudipena du kezka geroz eta gehiago entzuten dela euskal munduan eta zenbait egitasmo sortzen ari direla emakume idazleen eta itzultzaileen alde. Hain zuzen ere, atal honen bigarren zatian aipatuko ditugu euskal argitaletxeetan sortu diren lehen bilduma feministak.

Bestalde, Arrizabalagak aztertzen du zein leku duten feminismoari buruzko testuek euskal itzulpengintzan. Teoria feministak mundu osoko eztabaida behar du, eta hain inguru ezberdinetako emakumeen arteko harremanak, itzulpena beharrezkoa du. Hizkuntza normalizatuen kasuan, askotan bazterreko argialetxe txikiak arduratzen dira testu feministak argitaratzeaz, argialetxe handiek sona asko duten eta feminismo kutsua duten testuak argitaratzen dituztelarik. Euskal argialetxeen kasuan, ez dugu feminismoan berezituriko argialetxerik, beraz Arrizabalagak dioenez, “feminismoaren –bai eta emakumezko idazleen– testu funtsezkoenak ere euskaratzeke ditugu oraindik” (Arrizabalaga 2008: 85). 2008tik hona, aldaketa batzuk izan direla esan dezakegu, lan honetan aztergai dugun *Théorie King Kong* liburuaren itzulpena kasu.

Ondoren, hizkuntzaren erabilera zentratzen da Arrizabalaga. Feminismoak garrantzia handia eman dio hizkuntzari, emakumeen zapalkuntzarako tresna den heinean, tresna izan daitekeelako emakumeen askapenerako ere. Hizkuntza bakoitzak bere ezaugarriak ditu, eta interesgarria da aztertzea zein modutara azaltzen edo ezkututzen dituen emakumeak. Arrizabalagak azpimarratzen du hizkuntza bera ez dela sexista, bere erabilera dela sexista gizarte patriarkalean. Itzultzerakoan, erabilera sexista hori azaleratzen da, argiago ikusten da. Bestalde, itzulpena erabili daiteke hizkuntza bakoitzaren barnean hizketa sexistatik hizketa ez sexistara pasatzeko, nahiz eta horrek ez duen ideologia patriarkala gaindituko, hizkuntza aldatzeak ez baitu gizartea aldatzen.

Itzulpen irizpide berriei buruz aritzen da ondotik Arrizabalaga. Lehenengo zatian aipatutako itzultzailearen neutraltasun faltsuari buruzko aipua egiten du: itzulpen teoria feministek eta postkolonialek zalantzan jartzen baitute jatorrizko testuarekiko leial eta baliokide izanen den itzulpen bakarra lortzeko eredia. Itzultzailea bere hautuen erantzule da, ez da ikusezina, eta itzulpen-estrategia ezberdinen alde egin dezake testu baten aurrean.

Azkenik, itzulpen patriarkalen kritika egin ondotik, zenbait adibide ematen ditu. Lehenik eta behin, Bibliari buruz hitz egiten du, nola kritikatu duen feminismoak testu horrek patriarkatuaren mezuak dituela. Kritikak egin zaizkie kristautasunaren barrutik ere Bibliaren itzulpenei, eta horri esker, interpretazio berriak sortu dira, ideia patriarkalik gabeko interpretazioak. Ondotik, beste hainbat testu aipatzen ditu, eta itzultzaileek hartutako erabaki sexistak azpimarratzen: zati batzuk ezabatu, beste batzuk gehitu, izenondo ezberdinak baliatzea neskez edo mutilez ari garenean... Bestalde, dio emakumezko idazle baten idazkera ez denean konbentzionala, heterogeneoa denean, itzultzaileak akats gisa hartu izan duela eta “zuzendu” izan duela batzuetan. Ez duela idazlearen estiloa errespetatu, alegia.

Urtebete beranduagokoa da Iratxe Retolazaren artikulua, *Zehar* aldizkarian agertutako “Luma feminista, itzul-ariketak” testua. Gai nagusia hizkuntzen genero baliabideak dira, eta horien itzulpena. Askotan pentsatu izan da ezin zirela itzuli, eta nahiz eta itzultzaile trebe askok hizkuntzetako baliabide guztiak erabili, askotan genero baliabideak ahazten dituzte. Adibidetzat hartzen du Xabier Olarrak itzultitako Raymond Queneau-ren liburua, *Estilo Ariketak*. Liburu horrek behartzen du itzultzailea xede-hizkuntzako baliabide guztiak erabiltzera, eta Retolazari iruditzen zaio Olarrak ez zuela nahikoa ustiari genero baliabidea, jatorrizkoan nolabaiteko anbiguotasuna bazegoen ere, Olarrak generoari dagokionez interpretazio hertsiago bat egin omen du.

Genero baliabideen ahanztearen joera horren kontra, literatur kritika feministak atentziora jarri du itzulpengintzan, ohartuz, zenbait testu feministek izaera feminista galtzen zutela itzultzailearen eskuetatik pasa ondoren. Ideia hori Arrizabalagaren artikuluan ere ikusi dugu. Retolazak zenbait adibide gehitzen ditu, zeinetan euskaratik espainolera itzultzerakoan, genero ezagunik ez zuten pertsonaiek genero jakin bat jasotzen duten, gaztelaniaz generoa markatu behar delako.

Retolazaren artikuluko hurrengo atalean, luma feministei buruz hitz egiten da. Ikertzaile askoren arabera, luma/idazle feministen lanak eurak itzulpentzat har daitezke: sorkuntza lanak dira, baina kode patriarkaetik beste kode batera pasatzen diren heinean, itzulpen gisa har litezke. Horretarako, obra askotan total-motelka, arnasestuka mintzo dira pertsonaiak. Ekiteko beste modu bat da, idazkera patriarkala nola eraikita dagoen erakustea da. Azkenik, Itxaro Bordak erabilitako estrategia dugu, ustezko neutraltasun hori oso subjektiboa dela erakustea, alegia: *Basilika* liburuan (1984) narratzailea epailea eta orojakilea da, “ahalguztiduna”, horrela berez hausten du narratzailearen ohiko “neutraltasun” horrekin.

Euskaraz itzulpengintzaren teoria eta feminismoa lotzen dituzten testuekin amaitzeko, itzulpen bat aipatuko dut: Bego Montoriok itzultitako “Itsasargiak iluntasunean. Ideologia eta itzulpengintza: ikuspegi feministak eta postkolonialak” artikulua da, María Reimóndez itzultzailearena. 2013an argitaratu zen *Senez* aldizkarian.

Lehenik eta behin, artikuluan aipatzen da itzulpengintza eta interpretazioa ilungune bat izan direla denbora askoan, ilunpean nabigatzen duen itsasontzi batekin konparatzen du. Berak ere kritikatzeko ditu itzulpenaren teorien nagusi izan diren ideiak: itzulpenak gardena izan behar duela, neutroa... Itzultzaileak ikusezina izan behar duela, sormena ez dela ona..., horrelako diskurtsoak ezkututzen du itzulpenak eta interpretazioak eragin etengabea duela gure bizitzetan, eta ideia horiek irauten dute zenbaiti interesatzen zaielako.

Iluntasuna deskribatu ondotik, argitasun puntuak aurkezten dizkigu: itzulpengintzaren teoria. “Teoria ez da itzulpen ezin hobea lortzeko arau sorta bat” (Raímondez 2013:209), baizik eta itzultzearen prozesua ulertzea. Prozesu horretan, ideologiak duen garrantzia azpimarratzen du. Ideologia nagusia jendarte guztiek irauarazten dituzten balioak dira, eta ikusezin izan ohi dira, ilun. Ideologia ez da eraikitzen hertsaduraren bidez, askotan era inplizituan eraikitzen da, “normaltasun” bat

sortuz. Hasieran, itzulpenaren teoriak zioen ideologia alde batera utzi behar zela itzultzerako orduan. Baina ohartu gara, kasu horretan, itzultzaileak ideologia nagusiaren alde egiten duela.

Inpartzialtasuna existitzen ez dela frogatzeko, Raimóndezek Nurembergeko epaiketetan lan egin zuten interpreteen kasua kontatzen digu: askok beren larruan pairatu baitzuten epaituak izaten ari zirenen tortura, zapalkuntza. Fideltasunari eta neutraltasunari buruzko teoriak gabeziak dituztela argi gelditzen da artikuluan eta teoria horiek boterea iraunaraztearen alde egiten dutela. Izan ere, itzulpen bat ideologikotzat jotzen denean, soilik esan nahi du ez duela ideologia nagusiarekin bat egiten.

Idea horiek argi utzita, teoria feminista eta postkolonialetan zentratzen da. Teoria hauek diote itzulpena tresna bat dela botere patriarkal eta inperialista betikotu edo iraultzeko. Ondorioztatzen dute itzulpen teoria androzentrikoa eta eurozentrikoa dela, eta ikerketa gehienak hizkuntza hegemonikoetan egiten direla. Gainera, teoriar erabiltzen diren metaforak kritikatzeko dituzte. Ikuspegi teoriko hauetatik (feministetatik eta postkolonialistetatik) egindako ikerketek, kritikaz gain, itzulpen estrategia berriak garatzeko bidea zabaldu dute. Interbentzioak askotarikoak dira hizkuntza-konbinazioen arabera, testuen arabera...

Ondoko atalean, Raimóndezek Galiziako itzulpengintzaren egoerarekin egiten du lotura, non beste bi alor gehitzen dizkion: itzulpena “normalizaziorako” eta “eraikuntza” nazionalerako. Galizian, normalizazioaren alde itzulpen asko “bertakotu” egiten direla dio artikuluan, baina ez da ahaztu behar komunitate horren barruan ere badirela zentroak eta periferiak: emakume eta gizonen arteko desorekak, eta iparreko herri gisa, hegoko herriekiko desoreka. Itzultzaileak normalizaziorako joera izaten du, baina ez du alde batera utzi behar lanaren alderdi kritiko eta kontzientea. Eraikuntza nazionalari dagokionez, garrantzia ematen zaio hizkuntzari eta literaturari, baina Raimóndezek dio proiektu nazionalak askotan oinarri patriarkala duela.

Adibidez, erronka nazional handi bat da literatura unibertsaleko obrak galizierara ekartzea, baina askotan hizkuntza hegemonikoetan gizonezkoek idatzitako obrak izaten dira. Gainera, literatur itzulpena gehien bat gizonezkoek egiten dute, nahiz eta itzultzaile gehiago izan emakumeak. Hala ere, gehitzen du Galizian badela erresistentziarako mugimendu bat, badira teoria feministak eta postkolonialak lantzen dituzten teorizatzaile batzuk, nahiz eta praktikan, itzultzerakoan, itzultzailearen interbentzio esplizituak urriak izan.

Raimóndezen aburuz, itzulpena ekintza politikoa da, ez da teoria kontu bat soilik, eguneroko praktikan eragin behar da logika hegemonikoarekin hausteko.

2. Kasu-azterketa: *King Kong Teoria*

Atal honetan, kasu azterketara pasako gara. Lehenik eta behin, aztergai dugun obraren testuinguruari erreparatu nahi genioke. Ondotik, itzulpenean zentratuko gara arazoei eta estrategiei buruz hitz egiteko, eta azkenik itzulpenak izan duen harrerari buruzko zenbait zertzelada emango ditugu.

2.1 Itzulpenaren testuingurua eta aurretikoak

Arestian aipatu dugun bezala, Arrizabalagak zion feminismoari buruzko liburu garrantzitsuenak euskaratzeke zeudela oraindik 2008an, baina hainbat egitasmo sortzen ari zirela emakume idazle eta itzultzaileen aldetik. Azken urteetan zenbait obra feminista euskaratu dira, esaterako Virginia Woolfen *Mrs Dalloway* eleberria (euskaraz *Dalloway Andrea*) eta *Professions for women or Killing the angel in the house* hitzaldia (euskaraz *Emakumeen lanbideak edo Etxeko Aingerua hiltzea*), 2014ean argitaratu ziren liburu bakarrean. Lehena Itziar Diez de Ultzurrunek itzuli zuen, eta bigarrena Ana Isabel Moralesek (Edo! 2014). Aipa daitekeen beste itzulpen bat egile beraren *A Room*

of *One's Own* saiakera da, Maria Colerak ekarri zuen euskarara 2013an (*Gela bat norberarena*) eta Consonnik argitaratu zuen finantza-proiektu parte-hartzaile bat martxan jarrita. Baina lan honetan arreta berezia jarri nahi genieke azken bi urteetan izan diren berrikuntzei.

King Kong teoriaren argitalpena, hortaz, testuinguru jakin batean iritsi da, izan ere, euskal argitaletxeetan egitasmo berriak agertu dira azken bi urteetan. Inoiz baino saiakera feminista gehiago ekarri dira euskarara, eta prozesu horretan murgildu diren hiru argitaletxe aipatu nahi genituzke jarraian: Susa, Elkar eta Katakarak.

Susa argitaletxeak 2016an sortu zuen Lisipe bilduma, Jule Goikoetxearen gidaritzapean, saiakera feministak argitaratzeko asmoarekin. Gisa horretako lehen bilduma izan zen. Gaur egun hiru liburu argitaratu dira bilduman, eta bat itzulpena da: Monique Wittig-en *Pentsamendu heterozuzena*, hain zuzen ere, Maialen Berasategik, Irene Arraratsek, Danele Sarriugartek eta Mirentxu Larrañagak itzulia. Danele Sarriugartek idatzitako hitzaurrean honakoa dio:

Hamaika itzulpen-asmo abiatu dituen esaldiak abiatu zuen itzulpen hau ere, sarri esanagatik ez dena ez topiko ez eta balio gutxiagoko: *euskaraz behar du honek*. Hasiera batean ideia zen, grina, ez besterik; beste batzuen ideiek eta grinek eta ondoren lanak trinkotu zutenean baizik ez zen bilakatu mami (Wittig 2017: 10).

The Straight Mind: and other essays Monique Wittigek 1980ko hamarkadan idatzitako saiakera bilduma bat da. Bertan hitz egiten du heterosexualitatearen sistemaz, emakumea izateaz eta sistema suntsitzeaz.

Jakinek eta Elkar argitaletxeak urte berean sortu zuten elkarlanean Eskafandra bilduma feminista, 7 emakumek osatutako talde baten inizatibaz: Anari Alberdi, Idurre Eskisabel, Lorea Agirre, Maialen Lujanbio, Amagoia Gurrutxaga, Ainara Lasa eta Eider Rodriguez. Argitaratutako lehen liburua itzulpena izan zen: Angela Davisen

Emakumeak, arraza eta klasea saiakera. Danele Sarriugartek itzuli zuen emakume beltz eta klase sozial apalekoa izateak dakartzan hiru zapalkuntzei buruzko liburua. Ondotik etorri zen bilduma honen baitan aipagai dugun saiakera, 2017an, Virginie Despentes-en *King Kong teoria*, Itziar Diez de Ultzurrunek itzulia. Urte berean, 2017an argitaratu zuten bildumako hirugarren liburua, Silvia Federiciren *Caliban eta sorgina: Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa* saiakera. Edurne Lazkanok eta Aitor Arrutik itzuli zuten kapitalismoaren bilakaera ikuspegi feministatik aztertzen duen saiakera hau, Nafarroako liburu denden elkarteak saritu du aurten liburua. Aurten, maiatzaren 8an, beste itzulpen bat argitaratu berri dute: Judith Butler filosofo estatubatuarren *Genero nahasmendua* saiakera, hain zuzen ere, Ana Isabel Morales itzultzailearen eskutik. Butlerrek genero bitasuna lantzen du saiakera horretan. Eskafandraren helburua, feminismoari buruz idatzi diren testurik garrantzitsuenak euskarara ekartzea da. Eider Rodriguez Eskafandrako kideak esan digunez, bilduma hori itzulpenak soilik argitaratzeko asmoarekin sortu zuten, hori Lisipe bildumarekiko duten ezberdintasunetako bat da (Lisipek euskaraz sortutakoak ere argitaratzen ditu). Horretarako arrazoia Jakinen web atarian, bildumaren orrialdean dago:

Feminismoaren azken hiru mendeetako hainbat lan giltzarri euskaratzea du helburu bilduma berri honek, eta horrekin pentsamendu feministaren eremuan euskarak duen hutsunea betetzea (Jakin 2018).

Mugimendu honetan sartu den beste argitaletxe bat Katakarak da, garai berean, 2017 bukaeran argitaratu baitzuen Silvia Federiciren beste saiakera bat, *Soldataren patriarkatua: Marxismoari egindako kritika feministak*, hain zuzen ere. 1970eko hamarkadatik hona pentsalari feministak idatzitako artikulu bilduma bat da, eta Amaia Astobizak ekarri du euskarara. Bestalde, Eider Rodriguezek aipatu digu Katakrakeko liburu-saltzaileek garrantzi handia izan dutela aztergai dugun obraren zabalkundean. Orokorrean, aipatu ditugun hiru argitaletxeetako bilduma horietako arduradunek

harreman estua dutela ere esan digu, nahiz eta ondoren bakoitzak bere programazioa izan.

Esan bezala, Eskafandra bilduma feminista sortu zuten Jakinek eta Elkar argitaletxeak elkarlanean, eta Eider Rodriguezek esan digunez, itzuli beharreko liburuen hautaketa bildumako kide guztien artean egiten dute. Kontuan hartzen dituzte pentsamenduan mugarri izan diren liburuak, esanguratsuak direnak, eta garrantzia ematen diote bildumako liburuen aniztasunari. Itzultzailearen hautaketari dagokionez, garrantzia eman zaio profesionaltasunari, eta baita feminista izateari ere. Kasu honetan, Lorea Agirrek proposatu zion Itziar Diez de Ultzurruni *King Kong Théorie* itzultzeko. Baziren urteak Diez de Ultzurrunek aldarrikatzen zuela saiakera feministak euskaratzeko beharra, eta horren froga da 31 eskutik blogean 2013ko abenduan argitaratutako artikulu bat: “Olentzerori Eskean”. Bertan, Diez de Ultzurrunek istorio bat kontatzen du, zeinetan bi emakumek Olentzerori idazten dioten euskaratzea nahi lituzketen testu feministen zerrenda bat. Zerrenda horretan *Le Deuxième Sexe* Simone de Beauvoiren saiakera famatua azpimarratu zuen, eta oraindik ere ez du inork euskaratu.

Gaiaren eta itzultzailearen arteko loturarekin jarraitzeko, Itziar Diez de Ultzurrunek duela hilabete batzuk idatzitako artikulu bat ekarri nahi genuke lan honetara. 2018ko otsailaren 11an argitaratu zen Berria egunkarian “Literaturazko muga ertzak zabalagotzen” izenarekin. Bertan, aztergai dugun obraren itzultzaileak obra feministen argitalpen egoerari buruz hausnartzen du, alde batetik ikuspegi baikor batetik: “Literatura feministaren loraldia egon omen da gurean 2017an. Argitalpenetan bezainbeste salmentetan” (Diez de Ultzurrun 2018). Loraldi hori lotzen du lehenago aipatu dugun testuinguruarekin, hau da, bilduma feministen sorrerarekin. Ikuspegi ezkorretik begiraturaz gero, azpimarratzen du oraindik ere mundua aldatu duten obra feminista asko daudela euskaratzeke.

Esan daiteke, beraz, itzultzaileak nolabaiteko lotura duela saiakera feministen itzulpenekin. Gainera, lehenago aipatu dugun bezala, aurretik ere obra feminista bat itzulia zuen: Virginia Woolfen *Mrs Dalloway* eleberria (Edo! 2014).

Argitalpenaren aurretik, argitaratzaileek beste hainbat gauza erabaki behar izan dituzte. Interesgarria iruditu zaigu liburuaren azala aipatzea, jatorrizko argitalpenekoa eta euskarazko bertsioak oso desberdinak baitira². Eider Rodriguezek esan digu bilduma osoko liburuetan xede dutela idazleen aurpegiak azalean agerraraztea, onartzen badute. Kasu honetan, Despentsek onartu egin zuen. Eskafandra bildumaren beste ezaugarri bat da liburu guztiek duten hitzaurrea. Gure aztergaiaren kasuan, Irene Arraratsena da.

2.2. Itzulpen-prozesua

Itziar Diez de Ultzurrun saiakera feministen gaiarekiko inplikatur dagoela ikusi dugu, eta Virginie Despentes *King Kong Théorie* saiakeraren idazleari dagokionez, itzultzaileak esan digu itzultzea proposatu aurretik ezagutzen zuela, irakurria zuela. Hala ere, itzultzen hasi aurretik idazleari buruzko informazio gehiagoren bila jo zuen sarera, elkarrizketak irakurri eta bideoak ikustera. Beti egiten duen zerbait da, baita fikzio lanak itzultzean ere. Kasu honetan gehitu dezakegu are garrantzitsuagoa izan daitekeela idazlea ezagutzea, izan ere, saiakera hau neurri handi batean autobiografikoa da, Despentesen izaerarekin eta bizitzarekin hertsiki lotua.

Gaiarekiko inplikazioari buruz galdetuta, Diez de Ultzurrunek dio ez zaiola iruditzen itzultzaileak feminismoarekin lotura izan behar duenik gisa horretako obrak itzultzeko. Imajina dezake inoiz saiakera feministarik irakurri ez duen itzultzailea

² Azalen irudiak ikusteko estekak <https://www.grasset.fr/king-kong-theorie-9782246686118> eta https://www.elkar.eus/es/liburu_fitxa/king-kong-teoria/despentes-virginie/9788490276822

halako bat itzultzen. Hala ere, onartzen du gaia zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta errazago ulertuko dituela erreferentziak, etab.

2017ko ekainean, Hitzen Uberan web atariak elkarrizketa bat egin zion Diez de Ultzurruni *King Kong Teoria* liburuari buruz, eta hor ere adierazi zituen liburu honen itzulpen-prozesuari buruzko zenbait ideia garrantzitsu. Itzultzailea ez da inoiz neutroa, lanaren lehen zatian ikusi dugunez, eta elkarrizketan irakur dezakegu, kasu honetan, zenbait gairen inguruan Diez de Ultzurrunek zituen ikuspuntuak aldatu direla saiakera hau itzultzerakoan. Itzultzaileak dio “berea ez den leku batetik” hitz egiten duela Despentesez, eta horrek itzultzearen erronka are erakargarriagoa egiten duela.

Itzulpen zailtasunei dagokienez, elkarrizketa berean Diez de Ultzurrunek dio saiakeraren lehen orrialdeak beldurgarriak iruditu zitzaizkiola. Arrazoiak galdetuta, erantzun du lehen kapitulua oso trinkoa dela, eta frantsesezko segida horrek euskaraz ere berdin korri zezala nahi zuela.

Nahiz eta argitalpen hau guztiz berria izan, zehaztu nahiko genuke *King Kong théorie* Diez de Ultzurrunek elkarrizketan aipatzen duen lehen zati horren beste itzulpen saiakera bat izan zela. Iñaki Seguroiak itzuli zuen, eta *Genero-ariketak* liburuan argitaratu zen beste hainbat testu-feministekin batera. Argitalpen hori 2014koa da, eta Edo! argitaletxearen eskutik sortu zen, Iratxe Retolazak eta Isa Castillok koordinatuta.

Baina lan honetan aipagai dugun 2017ko argitalpena itzuliko gara. Esaten da itzultzaileak obra bat itzultzerakoan izango dituen zailtasun guztiak lehen orrialdetan topa ditzakeela, eta hala gertatu zitzaion Diez de Ultzurruni Despentesen estiloarekin ere. Euskaraz arintasun bera lortzen saiatu da aditzaren tokia libreki mugituz eta erlatibo esplikatiboak kateatuz. Adibidez, “Ez zait piperrik ere interesatzen buztana tentearaztea amets eginarazten ez didaten gizonei” (Despentes 2017b: 17) esaldian, aditza aurreratzearen alde egin du. Ahal izan duenetan, aditzaren atzerakarga saihesten saiatu da, eta bere helburua zen euskal irakurleak arin eta eroso irakurtzea.

Saiakeraren beste berezitasun bat aipamenak izan daitezke. Oso ugariak dira, eta kapitulu bakoitzaren hasieran agertzen dira, baina baita testu barnean ere. Adibidez, zazpigarren kapituluaren aurretik, lehenago aipatutako Simone de Beauvoir-en *Bigarren Sexua* liburuko zati bat ikus dezakegu. Diez de Ultzurrunen lana izan da bilatzea ea aipamenak jada euskaratuak izan diren, eta kasu horietan bere horretan ekarri ditu, eta besteak itzuli egin ditu. Onartu du seguruenik aipamen batzuk oharkabean pasa zaizkiola, izan ere, aipamen batzuk aitortuak eta agerikoak dira, baina beste batzuk ezkutuagoak.

Azpimarratu nahi genuen liburuaren beste ezaugarri bat kapituluaren izenburuak dira, izan ere, erreferentzia asko gordetzen dituzte, eta zailtasunak sor zitzaketen. Zenbait izenburu hitzez hitz itzuli ditu, “Porno sorcières” esaterako, “Porno sorginak” bilakatu da, edo “Salut les filles” “Agur, neska”. Aldiz, Diez de Ultzurrunek esan digu lehen kapituluaren izenburuarekin dudak izan zituela: “Bad Lieutenantes”. Kasu honetan, 1992ko film bati egiten zaio erreferentzia, Abel Ferrararen *Bad Lieutenant* filmari hain zuzen ere, eta kasu honetan izenburua femeninoan jarri du idazleak. Diez de Ultzurrunek saiakeraren ingelesezko itzulpena kontsultatu zuen, eta ohartu zen itzultzaileak askatasun gehiagorekin itzuli zuela. Hortaz, hainbat aukeren artean, eta Lorea Agirre bildumaren arduradunarekin adostuta, “Neska gaizto armatuak” hautatu zuten, nahiz eta filmaren erreferentzia galdu den.

Beste kapitulu-izenburu batzuk ere aipatu nahi genituzke. Hirugarren kapitulukoa, adibidez, “Impossible de violer cette femme plein de vices”, Trust musika taldearen *Antisocial* kantuko esaldi bat da. Diez de Ultzurrunek euskarara itzultzea erabaki zuen: “Ezin da hain emakume biziotsua bortxatu”, eta oin-ohar bat gehitzearen aldeko hautua egin zuen: “Trust taldearen *Antisocial* abestiko esaldia (I.O.)”. Laugarren kapitulua “Coucher avec l’Ennemi” da, eta lotuta dago beste film baten izenburuarekin: Joseph Rubenen 1991ko *Sleeping with the Enemy*, hain zuzen. Diez de Ultzurrunek

itzultzea erabaki zuen: “Etsaiarekin lotan”, eta kasu honetan oin-oharrik gabe. Kasu honetan ere, erreferentzia galtzen da seguruenik, filma euskaraz ez baita inoiz agertu. Seigarren kapitulari dagokionez, jatorrizkoan “King Kong Girl” du izena, eta euskarazko bertsioan, berriz, “King Kong Neska”. Diez de Ultzurrunek ingelesezkoa euskaratzeko hautua egin zuen, batez ere, beranduago aipatuko dugun bakarrizketa batengatik. Josune Monton aktoreak, itzulpen hau argitaratu baino lehen, Despentesen testutik abiatuta bakarrizketa bat sortu zuen, eta *King Kong Neska*³ izendatu zuen. Hortaz, Diez de Ultzurrunek euskaratzea pentsatu zuen bakarrizketari keinu bat eginez.

Despentesen estilora itzulita, azpimarragarria da adjektibazio oso aberatsa erabiltzen duela saiakeran zehar. Euskararen egoera soziolinguistiko ezberdinarengatik ziurrenik, adjektibo kopuru murriztagoa dugu, edo frantsesez askotan eta naturalki entzuten diren izenondoan baliokideak oso erabilera murrizta dute euskaraz. Despentesen adjektibazioaren adibide dugu 11. orrialdeko esaldi hau: “Je suis ce genre de femme qu’on n’épouse pas, avec qui on ne fait pas d’enfant, je parle de ma place de femme toujours trop tout ce qu’elle est, trop agressive, trop bruyante, trop grosse, trop brutale, trop hirsute, toujours trop virile, me dit-on” (Despentes 2017a: 11). Euskarazko itzulpenean hau irakur dezakegu: “Gizonek emaztetzat hartzen ez dituzten emakume klase horietakoa naiz, zeinarekin ez duten seme-alabarik izaten; bata dela edo bestea dela, beti neurrigabea den emakume horren baitatik hitz egiten dut: oldarkorregia, zatatsuegia, lodiegia, basatiegia, ile-latzegia, mari-mutilegia, halakoa omen naiz beti” (Despentes 2017b: 17). Diez de Ultzurrunek dio saiatu dela agian asko erabiltzen ez diren baina ulergarriak eta sinesgarriak diren baliokideak hautatzen.

Saiakerak badu beste berezitasun bat: hiztegi eta idazkera kolokialak. Hiztegiari dagokionez, sexuarekin lotura duten hitzen erabilera nabarmendu nahi nuke: “bander”, “se faire mettre par derrière”, “jouir”... Hemen ere, euskararen eta frantsesaren egoera soziolinguistiko ezberdinek ondorioak dituzte gisa horretako hitzen erabileran. Interesgarria da itzultzaileak hartutako bidea, itzultzen ari zen heinean euskarazko

3 Bibliografian bakarrizketaren bideo bat ikusteko lotura gehitu dugu.

hitzen sorta bat hartu baitzuen, eta ondotik horiek erabili zituen saiakera osoan zehar koherentzia mantentzeko: “tentetu”, “popatik eman”, “gozatu”, “kitzikatu”, “txortan egin”...

Bestelako hiztegi kolokiala ere topa dezakegu: “chaudasse”, “bosser”... Esanguratsua iruditzen zaigu adibidez “Un film de cul, c’est fait pour se branler” (Despentes 2017a: 104) esaldia, “cul” eta “branler” hitzak oso erregistro baxukoak dira. Euskaraz honakoa dugu baliokidea: “...izan ere, film horien helburuak ez dira askotarikoak. Masturbatzeko dira eta kito.” (Despentes 2017b: 100). Nahiz eta hiztegi kolokiala galdu den, kasu honetan “film” eta “masturbatze” erabili baititu, “eta kito”-rekin lortzen du lagunarteko giro arin hori ematen. Diez de Ultzurrunek dio Despentesen estilo hori, itxuraz bakarrik dela arina, iruditzen zaiola dirudiena baino landuagoa dela. Horregatik, euskaraz ere asko landu du arintasun hori: estiloak lagunartekoa, zuzena izan behar zuen, aldi berean gordina eta sinesgarria. Horretarako, orotariko baliabideak erabili ditu: lexikoak eta sintaktikoak, joskerazkoak, esaldi barruko hitzen ordenari dagozkionak... Horrez gain, garrantzi berezia eman die senari eta belarriari.

2.3 Itzulpenaren harrera

Azkenik, itzulpen honen harrerari erreparatu nahi genioke, eta ahal dugun heinean zenbait datu eman. Goiz izan daiteke harreraren balorazioa egiteko, argitalpena 2017koa baita, eta euskaraz horrelako asko ateratzen ez direnez, liburu honen eraginak oraindik ere iraun dezake. Horren adibide da irakurle talderen batek horri buruzko eztabaida programaturik edukitzea 2018ko maiatzerako. Bestalde, adierazi behar dugu askoz gehiago sakon daitekeela harreraren arloan, salmentak aipatuz, gaiari buruzko ikerketetan noraino aipatzen den... Baina gai horietan sakontzeak lan honen mugak gaindituko lituzke, beraz datu nagusi batzuk soilik emango ditugu.

Saiakerak aski oihartzun handia izan du: esanguratsua da obra hau Katakarak liburu-dendan, 2017ko saiakera salduenen artean egotea. Eider Rodriguez Eskafandra bildumako kideak esan digunez, oso pozik daude izan duen salmentarekin.

Azpimarratu nahi genuke, argitalpen hau baino lehen, Virginie Despentesen jatorrizko saiakerak izan zuela eragina gurean. Aurretik esan dugun bezala, *King Kong Théorieren* pasarte bat itzuli zuen euskarara Iñaki Seguroiak: lehen 3 orrialdeak. Pasarte horretatik abiatuta, Josune Monton aktoreak bakarrizketa bat sortu zuen: *King Kong Neska*. Urteak daramatza antzezlan hori aurkezten Euskal Herriko plazetan.

Harreraren beste erakusle bat kritikak eta aipamenak izan daitezke, kasu honetan liburuak argitaratu eta aste gutxitara, hiru kritika argitaratu ziren *Berrian*, *Hitzen Uberan* eta *Argian*. *Berria* egunkariko Hasier Rekondok idatzia da, eta Diez de Ultzurrunen lana azpimarratu ondoren “Despentesen estilo zuzena eta artifiziorik gabea islatzen baitu” (Rekondo 2017), liburuak gomendatzen du. *Hitzen Uberan* atariak ere argitaratu zuen liburuari buruzko aipamena, Montonen antzezlanak aipatzen dute, eta baita Despentesen ibilbide oparoa ere. Azkenik, *Argiako* Onintza Iruretak liburuaren aurkezpen gisako bat egiten du.

Oihartzuna izan du liburuak, eta izaten ari da oraindik ere, zenbait irakurle-klubetan landu izan da, esaterako Santurtziko irakurzale-klubekoek 2017ko urriaren 9an landu zuten *King Kong Teoria*. Iruñean, berriz, 2018ko maiatzaren 25ean landuko dute Katakarak liburu-dendako irakurle-klubean.

Bestalde, hainbat ekimenetan erabili da *King Kong Teoria*. Lan honetan bi txertatu nahi genituzke. Oreretan, 2017ko urriaren 5ean, liburuarekin lotutako ekimen bat egin zen Eraldaketa Feministarako Eskolak antolatuta, *Denok izango gara King Kong* izenarekin. Bertan, liburuak aurkezteaz gain, Ainara Lasa Eskafandrako kideak bere sorkuntza-obra erakutsi zuen: liburuan aipatzen diren objektuekin sortutako erakusketa. Ondotik hainbat ikastaro eskaini zituzten, besteak beste “Neska gazteentzat

autodefentsa feminista” edo “Autoestimua eta ahalduntzea”. Halaber, Oiartzunen, 2017ko abenduan eta 2018ko urtarrilean *Genero-praktikak* izeneko sormen tailerrak antolatu zituen Ehuntze espazioak. Tailler horien artean egon zen, abenduaren 15ean “*King Kong Teoria* liburua aztertuz argazkia eta sormenaren bila” tailerra, hau ere Ainara Lasa Eskafandrako kidearen eskutik. Lasak bere sorkuntza-lana erakutsi zuen, eta proiektu hori gauzatzeko bidea azaldu zuen.

3. Ondorioak

Lanaren lehen zatia jorratzerakoan, egiaztatu dugu euskaraz oso argitalpen gutxi daudela itzulpen teoria feministei buruz. Arrazoi nagusiak lehenago aipatuak dira, Itzulpen Ikasketak zientzia berantiarra dela, eta are berantiaragoak direla itzulpen teoria feministak, baina gogoan izan behar dugu, halaber, euskaraz oso gutxi idatzi dela itzulpen teoriari buruz, oro har.

Horrez gain, aipatzekoa da orain arte gaiak idatzi duten ia guztiak emakume itzultzaileak direla. Pentsa daiteke gerora gaiak zentralitate gehiago hartuko duela itzulpengintzaren eta interpretazioaren munduan, orokorrean jendartean zentralitatea hartzen duen heinean, eta ikerketa eta dibulgazio lan gehiago argitaratuko direla.

Saiakera feministen itzulpenei dagokienez, ikusi dugu gaur egungo testuinguruan horien argitalpena zuzendutako zenbait bilduma daudela (hemen hiru adibide aipatu ditugu: Lisipe eta Eskafandra bildumak eta Katakarak argitaletxea). Esan dezakegu orain arte saiakera horiek itzuli dituzten gehienak emakumeak eta feministak direla, edo, behintzat, gaiarekin inplikaturik daudela. Nahiz eta esan dugun ez dela beharrezkoa ez emakumea ez feminista izatea gisa horretako testuak itzultzeko, praktikan ikusi dugu testua espezializatua baldin bada, horretaz dakiten itzultzaileak hautatzen direla.

Guk landu dugun itzulpenari dagokionez, Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaileak esandakoetatik ondoriozta dezakegu *King Kong Théorie* itzultzerako garaian kontuan izan dituela hartzailea eta testuingurua; horren adibide da “King Kong Girl” kapituluaren izenburua “King Kong Neska” itzultzearena, Josune Montonen bakarrizketagatik; edo egin duen adjektiboen hautaketa, kontuan hartuz euskaraz agian adjektibazio urriagoa dugula; hori dena, betiere jatorrizkoaren estiloari eta edukiari eutsiz (estilo zuzena, ez zainduaren itxura duena...).

Baliteke, bestalde, saiakera honen itzulpen-prozesuan ikusi ahal izatea euskarara, hots, hizkuntza txiki batera itzultzeak ekar ditzakeen zailtasunak. Adibide argi bat da askotan erreferentzia kulturalak (filmen izenburuak, beste liburu batzuetako pasarteak...) ez daudela euskaraz. Hortaz, hizkuntza txiki batera itzultzen duen itzultzaileak hizkuntza nagusietakoek egin behar ez dituzten hautuak egiten dituzte batzuetan.

Azkenik, lan honek ahalbidetu digu itzulpen teoria feministak hobeto ezagutzea, eta gure itzulpen jardunari beste modu batera begiratzea. Bukatzeko, azpimarratu nahi genuke euskal itzulpengintza eta feminismoa elkartzen dituen gai zabal honetan asko dagoela ikertzeko.

4. Bibliografia

ARRIZABALAGA, Bakartxo (2008): Itzulpena eta feminismoa. *Senez*. 32: 81-95.

CAGNOLATI, Beatriz. (2013): Traductología: Exploración de un enfoque feminista de la traducción. *III Jornadas del Centro Interdisciplinario de Investigaciones en Género*. (La Plata, Argentina).

CASTRO VÁZQUEZ, Olga (2008): Género y traducción: elementos discursivos para una reescritura feminista. *Lectora*. 14: 285-301.

CASTRO VÁZQUEZ, Olga (2009): (Re)examinando horizontes en los estudios feministas de traducción: ¿hacia una tercera ola?. *MonTI. Monografías de Traducción e Interpretación*. 1: 59-86.

CHAMBERLAIN, Lori (1992): Gender and the Metaphorics of Translation. In Lawrence VENUTI, ed. *Rethinking Translation. Discourse, Subjectivity, Ideology*. Londres, New York: Routledge, 57-74.

DESPENTES, Virginie (2017a): *King Kong Théorie*. Paris: Grasset.

DESPENTES, Virginie (2017b): *King Kong Teoria*. (Itziar Diez de Ultzurrunek itzulia). Donostia: Elkar eta Jakin.

DIEZ DE ULTZURRUN, Itziar (2013): Olentzerori eskean. *31 eskutik*. Data: 2013ko abenduaren 19a. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<https://31eskutik.com/2013/12/19/olentzerori-eskean/>>.

DIEZ DE ULTZURRUN, Itziar (2018): Literaturazko muga ertzak zabalagotzen. *Berria*. Data: 2018ko otsailaren 18a. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <https://www.berria.eus/paperekoa/1870/025/001/2018-02-11/literaturazko_muga_ertzak_zabalagotzen.htm>.

HITZEN UBERAN (2017): Emakumea eta piztia, elkarren aliatu. Data: 2017ko ekainaren 16a. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<http://uberan.eus/?kaia/item/emakumea-eta-piztia-elkarren-aliatu>>.

HITZEN UBERAN (2017): Itziar Diaz de Ultzurrun: "Despentesen King Kong ez da ez ar ez eme: politikoki inposatu zaigun bitasunaz haraindikoa da". Data: 2017ko ekainaren 23a. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<http://www.uberan.eus/?gatzetan-gordeak/elkarrizketak/item/itziar-diaz-de-ultzurrunekin-hizketan>>.

IRURETA, Onintza (2017): "King Kong Teoria" liburua: Virginie Despentes punka euskaraz dator. *Argia*. Data: 2017ko ekainaren 9a. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<http://www.argia.eus/blogak/onintza-irureta/2017/06/09/king-kong-teoria-liburua-virginie-despentes-punka-euskaraz-dator/>>.

JAKIN (2018): Eskafandra bildumaren aurkezpena. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<https://www.jakin.eus/argitalpenak/eskafandra>>.

MONTON, Josune (2013): King Kong Neska. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<https://www.youtube.com/watch?v=ojm-C1bnnC8>>.

REKONDO, Hasier (2017): Zapalketaren aurkako amorrua. *Berria*. Data: 2017ko uztailaren 2a. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <https://www.berria.eus/paperekoa/2553/035/001/2017-07-02/zapalketaren_aurkako_amorrua.htm>

REIMÓNDEZ, María (2013): Itsasargiak iluntasunean. Ideologia eta itzulpengintza: ikuspegi feministak eta postkolonialak. (Bego Montoriok itzulia). *Senez*. 44: 207-225.

RETOLAZA, Iratxe (2008): Luma feminista, itzul-ariketak. *Zehar*. 63: 106-109. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<https://sareinak.net/2009/05/16/luma-feminista-itzul-ariketak/#more-226>>.

VON FLOTOW, Luise (1991): Feminist Translation: Contexts, Practices and Theories. *TTR : traduction, terminologie, rédaction*. 4(2): 69–84.

VON FLOTOW, Luise (1998): Le féminisme en traduction. *Palimpsestes*. 11:117-133. Azken kontsulta: 2018ko maiatzaren 23a. <<https://sareinak.net/2009/05/16/luma-feminista-itzul-ariketak/#more-226>>.

WITTIG, Monique (2017): Pentsamendu heterozuzena. (Maialen Berasategik, Irene Arraratsek, Danele Sarriugartek eta Mirentxu Larrañagak itzulia). Zarautz: Susa.

5. Eranskinak

5.1 Itziar Diez de Ultzurrun itzultzaileari egindako galderak

(Itzuli aurretikoak-edo)

- Nola sortu zitzaizun *King Kong théorie* euskaratzeko aukera? Zuk proposatu zenuen, argitaletxeak enkargatu zizun...?
- Zure iritziz, saiakera bat itzultzean, itzultzailea bat etorri behar da edukiarekin? Kasu honetan, saiakera feminista bat itzultzeko, itzultzaileak feminista izan behar du? Edo posiblea da norberaren ideiak gorabehera, idazlearenak ondo transmititzea?
- Elkarrizketa batean diozu “Nirea ez bezalako beste leku batetik hitz egiten du”, ikuskera ezberdina duela baina zurea osatzen duela, horrek zailago egiten du itzultzea?
- Saiakera autobiografikoa izanki, beharra sentitu duzu idazlearen bizitzari buruz gehiago jakiteko?

(Itzulpena bera/itzulpen prozesua)

- Uberan elkarrizketa: “Itzulpen lanari buruz: lehen orrialdeak beldurgarriak iruditu zitzaizkidan eta kikildu ere egin nintzen, apur bat” Zergatik beldurra?
- Zein izan dira saiakera honetan izan dituzun itzulpen-arazoak? Eta nola konpondu dituzu?

Niri bururatu zaizkidan zailtasunak hauek dira, agian ez dira zailtasunak izan zuretzat, komentatu ditzakezu?

- Kapituluaren izenburuak
- Emakumeei deitzeko hitz ezberdinak: fille, femme -> beti itzuli dituzu neska, emakume?
- Sexuari buruzko hitzak euskaraz “bander”, “se faire mettre par derrière”, “jouir”,
- Erreferentzia frantsesak
- Generoarekin lotutako hiztegia -> tresna bereziren bat baliatu duzu? Virilité, féminité, ...
- Hiztegi kolokiala “bossier”, “chialer”, “baiser”, “keupone” (punkzaletasuna)
- Idazteko modu kolokiala, “c’est pas” negaziorik gabe.

5.2 Eider Rodriguez Eskafandrako kideari egindako galderak

Eskafandra bilduma

- Zergatik eta zer helbururekin sortu duzue Eskafandra bilduma?
- Garrantzitsua da saiakera feministak itzultzea? Eskafandra bildumak itzulpenak bakarrik argitaratuko ditu?
- Baduzue harremanik era horretako liburuak euskaraz kaleratzen dituzten beste bilduma-argitaletxeekin (Lisipe, Katakarak...)
- Nola aukeratzen dituzue argitaratuko dituzuen liburuak?
- Itzultzailea(k) hautatzeko orduan, zer hartzen duzue kontuan?

King Kong teoria liburua

- Ze punturaino iruditzen zaizu liburua egokia gure errealitaterako? (Frantzia – Euskal Herria)
- Zergatik aukeratu duzue azal hori? (Desberdina jatorrizko estilotik)
- Zein izan da euskal irakurleen harrera? Salmenta?